



250. zenbakia

• Apirila 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



LANBROA

(Hezur berriak – Ane Labaka Mayoz) Susa, 2025

Idiak deritzon talde bat daukat
neure buruarekin.
Ipuin posibleen hasiera posibleak pilan
balizko nobeletarako hari lokabeak
dirulaguntza deialdi iraungiak
lehiaketa biren oinarriak
inoiz neuretu nahi nituzkeen esamoldeak
inoren liburu gomendioak
inori ostutako aipuak.

Beldurra diot
produktibo ez izateari
ez-produktibo izateari
panikoa.

Nola gal lezake
denbora
faltan duenak?

Zirriborro lanbro bat daukat
burmuinean
egin nahi nituzkeen guztiak loopean
gosaritako ontziak oraindik harraskan
eta izarak eta komuna eta ilea garbitzeke.



Irailaren 16tik aurrera

Esan Erran irratiko denboraldi berria martxan!

Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:

EGUN ERO magazina

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostiraletan, goizeko 10:00etan, txandakatuz:

EGUN ERO KANTUZ eta MEMORIAREN TXOKOA

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostegunetan, 19:00etan,

BROMA GUTXI

(larunbatetan 20:00etan errepikapena)

Eta, gainerakoan, Arrosa sareko irratsaioak eta Zebrabidea
magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia, puntako musika,
podcast desberdinak...

PIZTU ESAN ERRAN!

FM-ko 107.9 edo

amezti.eus/irratia/zuzeneko



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Jorge Biurrarena Barrenetxeak bidalitako argazkia. Ernaitzutek ateratakoa.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 9an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Etxebizitza eta landa cremua*

07

Ingurumena. *Otsoa*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Elkarrizketa. *Jesus Ezkurra baratzezaina*



16

Herrian bertan. *Kantu klaseak*

20

Aspaldiko kontuak. *Jose Zenotz Zia, Alkozko aizkolaria*

24

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

26

Ardo freskotik. *Espainiako arrazismoa*

28

Kirola. *Andoni Gaskue atzelaria*

30

Elkarrizketa. *Patxi Biurrarena eta Oier Legarra udal langileak*

32

Zer irakurri. *Ultzamako Liburutegia*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Urtarrila*

Geroz eta zailagoa... eta garestiagoa

Gizartean pil-pilean dagoen gaia da, geroz eta zailagoa da bizitzeko toki bat aurkitzea. Etxebizitza erostea edo alokatzea geroz eta garestiagoa da, eta soldataren zati handi bat bideratu behar da ordaintzeko. Hori, gainera, langile familia baten erosteko gaitasuna geroz eta murriztagoa denean. Landa eremuan ere oztopoak handiak dira eta eskualdeko udalak kezkaturik daude.

Etxebizitzaren garestitzea, etxegabetzeak, gazteek emanzipatzeko duten zailtasuna, pertsona migranteek pairatzen duten arrazakeria, gaiak ertz asko ditu. Eta, landa eremuan, zein da egoera? Ultzama aldeko udalei galdetuta, haien kezka nagusien artean dagoela aitortu digute, eta, galdetu dugun gazteen artean nahiz eta gehiengoak eskualdean gelditu nahi duen, oso zaila ikusten dute.

Landa eremuan, eskaintza gutxi

Etxebizitzaren arazoa orokorra da, baina landa eremuak baditu berezitasunak. Hasteko, gurea bezalako eskualdeetan eskaintza eskasa da eta garestiagoa. Martin Pikabea, Ultzamako alkatea: "Ultzaman ez dago apenas alokairurik, urbanizatu daitekeen lursail asko dago, baina jendeak ez du saltzen edo obrarik egiten". Ultzamaren kasuan, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke proiektuak martxan jarri nahiko lituzkete, baina, momentuz, aukerarik ez dute izan: "Joan zen legealdian partzelazio proiektu bat sortu zen, eta udalarendako lur zati nahikoa lortu genuen BOE (gazte-leraz, VPO) etxebizitzak egin ahal izateko. Bi eraikin aterako lirateke, hainbat pisuetakoa. Baina aurtengo maiatzetako egin behar zuen, eta enpresak geldirik du". Pikabeak azaltzen digunez, edozein proiektutan lursailaren %10 udalari eman

behar zaio, baina, proiektu handiak ez badira, ez dago toki nahikorik eraikitzeke.

Eskaintza falta hori ez da berria, baina, egun, sarbidea are gehiago zaildu omen da. Silvia Zabalza Armendarizek (46) hemezortzi urte egin ditu Lantzen: "Gurea etxe zahar bat zen, baina sei etxebizitza berri egin zituzten udalak bultzatuta. Momentu honetan ez zen posible izan, orain oso aukera gutxi dago herrian gelditzeko". Lantzen ume eta gazte franko dago, eta Zabalzak kezkaz esaten digu ez dutela aukerarik izan. Oihane Perez Orbarak (37) hamabi urte eginen ditu Leazkuen: "Oso zaila egin zitzaigun alokairuan aurkitzea. Kotxea hartu eta Iruñetik gorako errepide guztietan kartelak zituzten etxeetan, edo plazetan eta tabernetan galdetzen genuen". Eugin lehenengo eta Olaguen bizi izan ziren ondoren. Azkenean, Leazkuen erosi zuten etxea.

Eta hutsik daudenak?

Eskaintza eskasa da, bai. Baina badira hutsik dauden etxe franko. Zer

gertatzen da haiekin? Lehenengo arazoa, jabea bat baino gehiago izan ohi dela eta ados jartzea ez da erraza. Horregatik, ez daude salmentan edo alokairuan. Bestetik, daudenak, oso handiak eta garestiak izaten dira: ez daude gaur egungo familien tamainara egokituta; ezta haien poltsikora ere. Santos Etxegia alkatea: "Familia batek ezin du horrelakorik mantendu. Sekulako diru-sarrerak behar dira etxea mantentzeko. Horiek pisuak edo familiabakarrak beharko dute izan lehenago edo geroago. Horiek dira biztanleak herrira ekartzen dituenak".

Lanzko Silvia Zabalzak eta Leazkueko Oihane Perezek ere etxebizitza hutsei irteeraren bat atera beharko litzaiekeela uste dute. Zabalza: "Etxe asko hutsik daude baina ez dago asmorik saltzeko. Orduan, kale nagusian, adibidez, estatutik behera, ez dago ia-ia inor". Perez: "Jende batek uste du *Barbi*-ren gaztelua duela, etxe zahar bat duenean, eta inor bizi ez bada azkenean erori egingo da. Zerutik erori zaien etxea izaten da eta ez dutena behar, baina ez diote irtenbiderik ematen. Herri askotan gertatzen da hori, etxe handiak daude baina hutsik, eta nik uste dut politika publikoren bat egon beharko litzaiekeela etxe horiei irtenbideren bat emateko".



Basaburuko Udalak lau etxebizitza ditu, bi alokairu sozialerako



“ Santos Etxegia,
Basaburuko alkatea:

Hemen alde egiten
duten pertsonak
izen eta abizenekin
ezagutzen ditugu,
hemen ez dira
numeroak

”



Udabe-Beramendin lau etxebizitza VPO eta VPT eraikitzeako lursailak salmentan jarri ditu kontzejak. Hiru saldu dira

Hain zuzen ere, gaia erabat loturik dago despopulazioarekin, Santos Etxegiak garbi du: “Hemen alde egiten duten pertsonak izen eta abizenekin ezagutzen ditugu, hemen ez dira numeroak, eskolan ibilitakoak dira. Hain zuzen ere herritarrak joateko lehenengo kolpea garraio faltarengatik izaten da. Institutura joaten direnean joaten zaizkigu. Eta hurrengo kolpea hau da, 25-26 urte betetzen dituztenean, lanean hasten direnean, ez dagoelako etxebizitzarik”.

Zaharberritzea, oztopoz betea

Basaburuko alkatearendako bi-dea hori izan beharko litzateke, hutsik dauden etxe handi horiek zaharberritu eta zatitzea, baina horretarako oztopoak besterik ez daude: “Garestiagoa da etxe zahar bat berritzea (bat berria eraikitzea baino), askoz garestiagoa, gainera; Beharbada %30 garestiagoa izan daiteke. Eta dirulaguntza berdina da Iruñean, Burlatan, Corellan edo hemen. Atera kontuak, bakarrik honaino enpresa bat eta materiala ekarri askoz ere garestiagoa da. Nafarroako Gobernuaren ratioak ez zaizkigu balio, eta ez dakit gogo asko dutenik zuzentzeko ere”. Mar-

tin Pikabea, Ultzamako alkatea, ados: “Hemen dena garestiagoa da, pareta handiak dira, leihoak ukitu behar baldin badituzu, solairu arteko altuerak, teilatua... prezioan eragin handia du etxe zaharrak direlako”, eta zaila ikusten du Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak egokitzea: “Legeak guztiondako kafea esaten den bezala izaten dira. Ez dira bakoitzaren egoeraren arabera aldatzen”. Basaburuko alkateak, ordea, egokitu behar direla uste du: “Dirulaguntzak behar dute ekitatiboak izan, hau da, ez berdindin, baizik eta gehiago behar den tokietan, gehiago eman. Ez dira behar etxebizitza gehiago Iruñean edo Lekunberrin. Herri txikiak hustutzen ari dira, norbaitek nahi izanen du”.



Muskizen, Itsasonean, hiru etxebizitza ditu alokairuan Imozko Udalak

Prezioen eta dirulaguntzen arazoa gutxi balitz, gurea bezalako eskualdean, beste muga batzuk aurkitzen ditugu. Etxe zaharrak berritzekoan, armarriak eta bestelako elementu historikoak gorde behar dira. Martin Pikabea, Ultzamako alkatea azaldu digu: “Zaharberritzeari dagokionez, etxe zahar asko dago eta haien tamaina ez da bideragarria. Hainbat etxebizitzatan zatitu beharko lirateke baina hor beste arazo bat dugu, hemen etxe asko Principe de Viana erakundeak babestuak dira. Horrek asko mugatzen zaitu ezer egiteko”. Eta, bada gehiago, hemen ere burokraziarekin topo egin dugu. Etxe berri bat eraikitzea merkeagoa dela aipatu dugu, baina, kasu horretan, oztopoak ere ugariak izaten dira *papeleoari* dagokionez. Epeak izugarri luzatzen dira Santos Etxegia Basaburuko alkateak salatu duenez: “Ez da normala bizitzeko etxe bat egin behar duen partikular bati hogei etxebizitza egin behar dituen enpresa bati eskatzen zaion dokumentazio bera eskatzea. Ez dakit nork ateratzen dituen arau horiek baina ez du zentzurik. Uste dut aurreratzen ahal direla denborak”.



Zer egin daiteke?

Konponbidea ez da erraza, udalek ere badakite, baina lehentasuna dela esaten digute. Aipatu dugunez, etxebizitza berrien sustatzea nahi dute, lursailak lortuz eta babes ofi-

zialekoak eraikiz edo herriek dituzten eraikin publikoak alokairurako ateraz. Horretaz gain, Basaburuan, adibidez, hirigintza-plan berrian zenbait baldintza aldatuko dituzte eraikuntza berrietan eta zaharberri-tzeetan erraztasunak eskaintzeko:

“Ez dugu nahi alokairu turistikoek hemen dauden aukerak kentzea. Orduan horiek ere beharko dute bizigarritasun-zedula bat. Bestetik, etxe berriak eraikitzeke erraztasun gehiago jarri nahi ditugu oso zorrotzak ziren arau batzuk aldatuz”.

Eta, gazteek, zer iritzi dute?

Eskualdeko gazteei auzia nola bizi duten eta zer eskatuko luketen galdetu diegu.

Unai Kaiet Elizalde Estevez (20), Aizarozko gaztea:

“Etxe bat lortzea oso zaila da, ikasleendako oso zaila delako lana lortzea. Pisuak garestitu dirazailago bihurtu denean lana bilatzea. Adibidez, nik begirale titulua atera nuen duela bi urte eta orain hasi naiz lan gehiago egiten, tarteka: ihote astean, aste santuan... baina, jakina, hori ez da diru iturri nahikoa ezer ordaintzeko, ezta gela bat alokairuan hartzeko ere. Gaur egun, gazte askoren kasuan, gurasoengandik independizatu nahi badute, lagunak, bikotea behar dituzte, bi edo hiruren artean ordaindu, gutxienez, eta pisu txiki bat gainera. Zer eskatuko nuke? Bada, nonbaiten ikusi dut gazteendako edo ikasleendako pisu blokeak daudela. Horrelako blokeak erosi litezke eta alokairua merkeagoa jarri ikasleendako edo gazteendako”.

Amets Markina Perez (19), Aizarozko gaztea eta Mugimendu Sozialistako militantea:

“Landa eremuan, Euskal Herrian bezala, etxebizitzarena egiturazko arazo bilakatu da. Izan ere, egun, etxebizitza negozioarako baliabide da, eta krisi garai honetan egoera larriagotu da. Landa eremuan, gainera, aukerak urriago dira. Eskualdean, gehienak, etxe handiak dira eta hauen kostua oso altua da gazte langileentzako. Gainera, alderdi politiko guztiek baimentzen dute egoera, etxebizitzaren negozioa babestuz eta langile klasearen aurkako neurrien bidez. Adibide aipagarriena: abenduan diputatu kongresuan onartu zen okupazioaren aurkako neurria PSOE, EH BILDUK, PODEMOSek eta alderdi gehiagoren babesarekin. Gazte langileok ezin gara konformatu eskualdean alokairuaren prezioa mugatzearekin edo etxebizitza sozialak eraikitzearekin. Horrela ere, etxebizitza negozioa izaten jarraitzen du. Borroka kalean egon behar da, doakoa, kalitatezkoa eta unibertetsala izanen den etxebizitza baten alde. Alderdi politikoen fartsari aurre eginez, kapitalismoaren suntsiketa eta sistema sozialistaren eraikitzea beharrezkoa da”.

Itziar Olagüe Barberena (24), Lizaso:

“Ez dakit eskualdean bizi nahi dudana bizitzeko aukerarik ez dudalako ikusten. Uste dut hori dela zalantzan jartzearen arrazoi nagusia. Salmentan dauden etxeak ez dira gazteontzat irisgarriak, ez dago alokairurik, etxeak berritzeko daude, handiegia dira batek bakarrik erosteko eta garestiegia da etxea banatzeko obra... Gazteondako erraztasunak eta aukerak jartzea gustatuko litzaidake: inbertitzea, eskualdea despopulatu baino lehen. Banaka egin ezin duguna, norbanako gisa, udal edo gobernu gisa egiteko ardura dute. Etorkizunean bizimodu jasangarria izan dezagun herriak zaindu eta mantendu behar dira”.

Maite Ibarra Berraondo (23), Alkotz:

“Herriko bizimodura ohituta nago eta, nahiz eta ikasketengandik hemendik kanpo denboraldiak igaro ditudan, hau nire tokia dela uste dut. Posible ikusten dut, nire bi gurasoak eskualdeko bi herri desberdinekoak izanda, aukera izanen nukeelako batean edo bestean bizitzeko, betiere etxe bat berrituz. Hala ere, eskualdean etxe asko hutsik edo zaharkiturik daude, eta horiek berritzea oso zaila da gazteondako, baliabide ekonomikorik ez dugulako. Horren ondorioz, etxeak eta herriak hustuz joaten dira”.



Apirilaren 5ean Etxebizitzaren negozioaren aurka milaka lagun bildu ziren Donostian, Euskal Herriko Etxebizitza Sindakatu Sozialistak dietuta



CANIS LUPUS

Ibiltari batek otso bakarti bat ikusi zuen Larrun mendian eta Pirineo Atlatikoko agintariak konfirmatu zuten haren presentzia. Hori izan da albistea azken asteetan eta guk otsoaren ezaugarriak ekarri ditugu, Argiatik hartutako artikulu batetik eta egungo datu batzuekin osatua.

2007ko otsailaren 21ean

Argian, egokitua

Otsoa, kanidoen familiako ugaztun eder hau, itxura aldetik, zakur handi baten modukoa da, nahiz eta buru handiagoa eta borobilagoa duen. Zakurra baino belarri motzagoak ditu, beti erne, inguruan gertatzen denaz jabetzeko. Ikusmena ere modu berean oso garatua dauka eta begirada misteriozkoa du, beharbada euren inteligentzia handiaren adierazle. Usaimenak ere, nola ez, puntako garapena du eta aurkari nagusia, gizakia, distantzia luzera nabarmentzen du. Ehiztari ona izateko ezaugarri bikainak ditu. Lepo sendoa eta iletsua du, baita hankak ere, ehizakia harrapatu nahi badu behintzat beharrezkoak ditu.

160 cm-ko luzera har dezake, eta altuera 70 eta 80 cm bitartean. Arra 40 kg ingurukoa izaten da eta emea 30 kg ingurukoa. Historiak ibiltari gautiarra izatera behartu du otsoa, nahiz eta neguan, inoiz, egunez ere ikusi ahal den. Egunsentian ere hor izango dugu zelatan, animalia goiztiarren bat erasotzeko gertu. Bere lurraldetasuna ondo defendatzen du modu ezberdinetan: leku jakinetan gorozkiak utziz edo txiza eginez adibidez, lurra aztarrikatuz, uzki guriaren jarioen bidez edo bere burua landare eta arrorekin igurtziz, usaina uzteko moduan. Otsoak harrapakari sena oso garatua dauka eta, nola ez, karniboroa



Zenbait datu

- Txakurra, gutxienez, duela 12.000 urte etxekotu zen otsotik.
- 1850. urterako Euskal Herriko otso guztiak hil zituen gizakiak.
- 2000. urtetik geroztik zerbait ugalduta zen Araban eta Bizkaian.
- Diputazioek ehizatze baimena eman dute eta 2010ean Arabako azken otsoa hil zuten eta 2016an Bizkaiko azkena.
- Nafarroan 95eko Iraungitako Espezieen Katalogoan desagertutzat ematen da. Duela mende bat baino gehiago ez dago otso talderik nahiz eta tarteka muga zeharkatu duen otso bakartiren bat ikusi den.

da. Herbiboro handien ehiztaria da ordea. Orkatzak, azeriak, untziak eta erbiak gustuko ditu. Eta guztiok dakigun bezala, elikatzeko modu errazagoak ere aukeratzen ditu etxe-azienda erasoz. Gosea badu inoiz sarraskijalea ere bihurtzen da. Harrigarria da nolako haragi zati handiak irensteko gaitasuna duen. Bere liseri aparatuak inongo zailtasunik gabe liseritzen ditu.

Izatez animalia soziala da, talde zalea, baina batzuetan bakarka ere bizi ohi da. Taldea hierarkizatu egoten da. Mailak ez dira soilik indarraren arabera ezartzen, otsoaren izaerak eta inteligentziak garrantzia handia baitute. Azken finean, liderraren ezaugarriak gainjartzen dira, ikertzaileentzat ere ulergaitza baldin bada ere. Otsoaren araldia eta estalketak abendutik martxora bitartean izaten dira. Estalketa eta gero 10 asteren buruan emearen erditzea etorriko da. Horretarako txoko ezkutu eta lasaiak bilatu ohi dituzte. Hiru otso kumetik zortzira bitarteko kopurua izaten dute emeek. Ardura handiz esnez hornitzen ditu, era berean arrak emea zainduko du, emearentzako ehizatuz. Gurasoen zaintzapean otso kumeak azkar hazten dira, hilabete batzuk dituztela hasten dira ehizean ikasten. Eta segituan izango dira prest gurasoengandik banantzeko. Urtebetean lortzen dute heldutasun sexuala.

Denok Bat

jubilatuen elkarte

Errioxa, Laguardia eta Ziaurritz

Hilabetero bezala, kanpora ateraldi bat egin eta eskualdean paseo bat eman dute Denok bat jubilatuen elkarteko kideek. Eta, hilabetero bezala, hemen kontatu dizkigute.

Martxoko txangoa Errioxa aldera egin genuen. Lehenengo Briones herrira joan ginen Vivanco upategia ikustera. Upategi ederra benetan, mahatsa ongi zaintzen duten horietakoa! Bi taldetan banatu eta goitik behera erakutsi ziguten nola egiten zuten mahatsa. Hura etortzen zenetik botiletan sartzeraino.

Kanpoko mahastegia ikusi ondoren upategira sartu ginen eta mahatsa iristen den tokitik hasi ziguten prozesu guztia azaltzen. Tartean beren "hiztegitxo" erabiliz, hainbat lan nola egiten dituzten ikusi genuen. Lekua txukun eta garbi zeukaten, erakusteko moduan! Gero kupelen lekuetatik ibili ginen. Lehenbizi 16.000 litroko zurezko batzuetan sartzen dute mahats zukua. Gero, ardoa beste upel txikiagoetara aldatzen dute.

Mota desberdinekoak egiten dituzte: berezietakoa upel gutxiago egiten dituzte, 1000 inguru; baina erakutsi ziguten beste leku han-



Lurpeko talde argazkia ▲

di batean, milaka eta milaka upel zeuzkaten, gehien saltzen duten ardoarekin.

Lurpekoak ikusi ondoren, museo-tik pasatu ginen ardo dastaketara bidean. Bi ardorekin egin genuen dastaketa. Lehena ardo beltz

"kriantza" kategoriakoa eman ziguten eta gidak agertu zizkigun bere ezaugarriak, guk dastatu bitartean. Bigarrena "erreserba" kategoriakoa izan zen, dastatzaileek nabaritu zuten batetik besterako aldea.



Ardo dastaketan, gidari entzunaz ▲



225 litroko upeletan ardoa pausatzen ▲



Atarian taldeko argazkia atera ondoren, Laguardiara (Araba aldera) joan ginen, bazkaltzeko.

Laguardian Udaletxeko ordularia ikusgarria da, hainbat ordutan, 14:00etan adibidez, musikaren laguntzarekin dantzari mekanikoak agertzen dira. Txuriz eta gorritz jantziak daude dantzariak, Laguardia noizbait Nafarroako herria izanaren seinale.

Hori ikusi ondoren bazkaltzera joan ginen errioxar janari bikainak dastatzera bertako ardoarekin lagundua. Arratsaldea, pixka bat ezagutzen genuen herri polita ikusi ondoren itzuli ginen etxera.

Martxoko "paseoa" Ziaurritz herri-tik hasi genuen. 21 lagun bildu ginen. Lehenengo Gendulain aldera egin genuen landa bideak aprobe-txatuz. Ondoren jaitsi ginen Erriparra, eliza ikusi eta Latasa aldera jo genuen.

Latasatik, errepidea zeharkatu eta Gelbentzu azpitik Gaskuera sartu



Laguardian, erlojuko dantzariak noiz aterako zain ▲



San Urbano ermitan, talde argazkia ▲



Ibilbideari hasiera emanez ▲

ginen San Urbanoko bidea hartze-ko. Ermita eta inguru zoragarria ikusi ondoren Ziaurritzera itzuli ginen. Eguna eguzkitsua izan zen, freskurari aurre egiteko. Ibilbide polita eta eramangarria, zelaitsua delako. Ibiltzeak gosea sortu zigunez, elkarrekin bazkaltzera joan ginen hurrengo ateraldiak prestatzeko aitzakiarekin.

Kronika hau idatzi bitartean, batzuk Peñiscola aldean dabilta.

Hurrengoan izanen duzue bidai horren berri. Baita, ohiturari jarraituz, hilabete bukaeran eginen dugun udaberriko festaren berri ere, Etsainen eginen dugun paseoa ahaztu gabe. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat



Denok Bat
Jubilatu Elkarte



Maiatzean bukatuko dituzte Txokolateroren etxeko obrak Jauntsaratsen

Datorren urtera begira, Jauntsarasko Txokolateroren etxe ezagunean adinduendako proiektua martxan jarriko du Basaburuko udalak, eta eraikinararen eraberritze lanetan aritu dira azken hilabeteetan langileak. Obrak amaitzen ari dira honezkero, eta maiatzean bukatzea espero dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Eraikineko solairu bakoitzak 300 metro baino gehiago ditu, baina momentuz, proiektuaren lehen fasea beheko solairuan zentratuko da. 200.000 euroko laguntza jaso zuen udalak egitasmoa aurrera eraman ahal izateko. Beheko solairuan jubitoteka, eguneko zentroa, sukaldea eta jantokia egingen dituzte.



Abian da sega-belardiendako dirulaguntza lerroa



Iaz bezala, aurten ere Balio Natural Handiko Segabeldiendako dirulaguntzak abiatu dituzte NPB Nekazaritza Politika Bateratuaren –gazteleraz, PAC delakoa– baitan. Silvia Zabalza Lanzko bizilaguna Nafarroako Ingurumen Kudeaketan aritzen da lanean, eta berak aurkeztu zuen ekimena Esan Erran irratian. Biodibertsitateari begira aberastasun handiko guneak diren sega-belardiak bultzatzea eta babestea da egitasmoaren helburua.

Nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboari lotuak egon ohi dira ingurune berezi horiek, baina biodibertsitate maila handia dute, bertan egiten den maneiuagatik. “Oso sega-belardi gutxi daude honezkero Nafarroan, kontserbaziorako balio handia dute, eta garrantzitsua da horiek mantentzea”, azaldu zuen Zabalzak.

Dirulaguntzak jasotzeko interesa duten pertsonen **apirilaren 30a baino lehen egin beharko dute eskaera**. NPB eskaera egiterakoan egin behar da dirulaguntza lerro berezi honena ere, baina, Zabalzak nabarmendu zuen, NPB laguntzarik jaso gabe ere egin daitekeela eskaera. “Ganadu gutxi duen pertsona batek, NPB laguntzarik jasotzen ez duena baina sega-belardiak dituen, egin dezakee laguntza berezi honen eskaera zehatza”, azpimarratu zuen.



Lehendabizikoz historian, emakumezko bat jantzi da Ziripotez Lanzko ihoteetan

Protagonista berezia izan dute aurtengo Lanzko ihoteak ezagunek, izan ere, urteroko pertsonaia berak atera arren, izan da berritasunik: lehenengoz, emakumezko bat atera da Ziripotez jantzita. Maialen Irurita Lanzko bizilaguna izan da aitzindaria, eta Esan Erraneko elkarrizketan adierazi zuenez, 'oso hunkigarria izan zen' momentua.

Berak zioenez, urte asko zeramatzan ideia hori burutan zuela, baina aurtengo arte ez zen inoiz auzartu proposatzera. "Aurtengoan pentsatu nuen, edo orain egiten dut edo tren hori pasatzen utziko dut". Ihauterien antolaketan aritzen direnei proposatu zien azkenean, eta begi onez hartu zuten denek. Aitortu duenez, asko animatu zuten eta oso babestuta sentitu da ingurukoen partetik, baita aurreko urteetan bere paperean aritu direnen aldetik ere. "Ilusio handiarekin bizi nuen eta oso pozik nago egin izanaz", aitortu zuen.





120 pertsona bildu ziren Muskizko ihoteetako bazkarian

130 kiloko zerria erre zuten bazkarirako eta horrek erakarri zuen jende gehiago, Pello Ayestarane hazi du zerria, Xabi Carrasconekin batera: "Muskizko Jose Ignaziok aspaldi zerriak izaten zituen eta gurasoen koadrilakoek ere zerria ekartzen zuten Saldiaстик, mata-

txerria egiteko, beraz lehenagotik ikusia nuen. Xabi lagunarekin jarri genuen, Jose Ignazioren kortak aprobetxatuz, kanpora ateratzeko prest dago korta, beraz kanpoan ibiltzeko aukera ere izan dute eta janaria nahi haina, pentsua eta herritarrek botatzen zizkioten so-

berakinak". Bi zerri ekarri zituzten irailean eta orain hil dute lehenengo, bigarrena zerrikumeak sortzeko nahi dute eta azaroan hiltzeko asmoa dute: "orduak osorik aprobetxatu nahi dugu, txistorrak eta denetarik egiteko".

Zerria jateko afari handi bat egin behar zuten eta aldi berean ihoteak ospatzea pentsatu zuten. Muskizko gainontzeko herritarrek ados agertu ziren eta horrela, 120 pertsona bildu ziren bazkaltzeko: "Normalean 80 bat izaten gara baina aurten berritasunarekin jende gehiago animatu da". Zerria osorik erre zuten, beraz, 12 ordu egon behar zuen suan, hura zaindu bitartean, gazteak gaupasan izan ziren: "Osorik erre nahi genuen, Ibarrako gizon batekin egon ginen eta hark aholkuak eman zizkigun, ikatzarekin nola erre behar genuen azaldu zigun. Parrilla egiten Alfredok lagundu zigun eta gaibonetan prestatu genuen".



Hasi da Lanzko frontenis txapelketa

24 bikote mistoek eman dute izena eta maiatzaren 11 bitartean jokatu da lehenengo fasea. Txapelketa, osorik, ekaina bitartean izanen da. Umeen txapelketa ere apirilaren lehenengo astean hasi da. Bost bikote eman dute izena.

Bestetik, Imozko pala eta frontenis txapelketak ere aurrera doa. Finalak apirilaren 12an izanen dira. Osotara 23 bikote eman dute izena: emakumezko frontenisean, bostek; Palako lehenengo mailan, seik; zortzik, bigarren mailan; eta lauk hirugarren mailan. Otsailetik larunbatero jokatu dira partidak, Latasan.





Martxan dira Basaburua MTB-ren udaberriko ikastaroak

Berueteko Manu Alvarezek sortutako proiektua da MTB Basaburua, eta iaz bezala, aurten ere mendiko bizikletako teknika ikasteko eskola martxan du. Udaberriko ikastaroei ekin berri diete martxoaren 12an. Alde batetik, 5 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikastaroa dago, eta bertan, BTT-ko oinarritzko teknikak ikasiko dituzte partaideek joko desberdinen bidez. Ostegunetan izanen dira klaseak, arratsaldeko 17:30etatik 18:30etara.

Maila aurreratuagoan, 12 urtetik gorako pertsonei zuzendutako beste ikastaro bat ere abiatu dute, bigarren hau teknikan hobetu nahi dutenentzat. Clases MTB Navarrako monitorea kontratatu dute bigarren maila honen gidaritzarako. Martxoaren 12an hasi ziren maila honetako klaseak, eta asteazkenetan izanen dira 16:30etik 18:30era. Apirilaren 10ean bukatuko da ikastaroa.

Baina, eskolako jardunaz gain, bestelako ekitaldiak ere antolatzen dituzte MTB Basaburua taldetik, eta datozen hilabeteetan izanen dira hitzordu garrantzitsu

zenbait. Esaterako, **apirilaren 26an, II. Amalur KDD irteera** egingen dute eskualdean, eta **maiatzaren 31n, berriz, XV. Basaburuko BTT martxa**. Basaburuko BTT-an lehenengo aldiz umeen lasterketa ere izanen da.



Pulunpeko zozketan musutruk parte hartzen duten ostatueta batzuk



Eskualdeko hainbat ostaturak saria eskaintzen dute, doan, Pulunpeko Zozketa Mundialean. Gure hedabideendako izugarritzko laguntza da hori.

Aurreko alean batzuk aurkeztu genizkizuen, hemen dituzue beste bat: Larraintzarko Ostaturak.



Larraintzarko Ostaturak

San Pedro 27
31797 Larraintzar
948 30 50 77
larraintzarostatu.com



Jesus Ezcurra Unzu

Zahar-etxeak barazkiz hornitzen dituen baratzezain jubilatu ilarregiarra

Nafarroako komunikabideetan ikusi dugu azken urteotan Jesus Ezcurra Unzu ilarregiarra, aza buru ederrak eskutan. Izan ere, Ilarregiko bere etxe inguruko lursailetan ehunka aza, zerba, kuia eta bestelako barazkiak ekoizten ditu Gerendiango eta Iruñeko Hermanitas de los Pobres zahar-etxeei dohaintzan emateko. 85 urterekin sasoi eta umore betean segitzen du Ezcurrak. Bere etxeko atea ireki dizkigu elkarriketa egiteko, eta ez gara esku hutsik atera handik, negutegiko letxugak opari eman baitizkigu.

Hemengoa, Ilarregikoa zara jaiotzez, ezta?

Bai, hor goiko etxean jaiotakoa naiz ni, Arotzenekoa. Jubilatu arte bizi izan naiz hor, duela hogei bat urte jubilatu nintzenean etxe hau eraiki genuen, Leku Eder, eta hona etorri ginen bizitzera.

Beti izan duzu baratzerako zale-tasuna?

Bai, beti gustatu zait. Lanbidez abeltzaina izan nintzen, esnetarako behiak genituen hor beheko etxaldean, baina behiak kendu nituenean, pentsatu nuen: zer eginen dut orain? Banekien Gerendiango zahar-etxean eta beste batzuetan justu samar egoten zirela beti, eta baratzean ekoizten nituen barazkiak haiei eramatea bururatu zitzaidan. Horrela hasi nintzen, Gerendiainera eta Iruñera eramaten nituen barazkiak: azak, zerbak, kuiak... ateratzen zena!

Dena dela, aza ekoizpenagatik egin zara ezagun batez ere, ezta?

Tira, gehienbat azak egin ditut, urtean mila aza inguru ekoiztera iritsi naiz. Zergatik aza? Bada, urrian ematen hasita, martxoan oraindik azak izaten segitzen duzu, garaia asko luzatu daiteke, eta horregatik jartzen nuen aza asko. Aurten ere



▲ Nafarroako egunkari bateko elkarriketarako argazkian duela 5 urte, azaburu ederrak eskutan

700 bat jarri nituen, udazken ona izan da, baina ikusi nuen goratzen hastera zihoazela. Zahar-etxeei abisua pasatu nien orduan, eta furgo-

netekin etorri ziren haiek bila. Karmarak ederki bete omen zituzten, pentsa, bi hilabetetara esan zidaten oraindik bazutela aza! (barreak).



▲ Mojek kudeatutako zahar-etxeei dohaitzan ematen dizkie barazkiak Jesus Ezcurrak

Zergatik egiten duzu dohaintza hori?

Laguntzeagatik. Jubilatutakoan sa-soian nengoen eta zerbait egin nahi nuen, eta ikusten nuen mojek kudeatzen dituzten zahar-etxe horietan beti justu ibiltzen direla, jendea jasotzen dutela bi peztogatik... horregatik hasi nintzen laguntzen, ez barazkiak eramanez bakarrik. Askotan goizetan joaten nintzen adinekoei gosariak eramatera, edo bazkal ordurako... boluntario gisa joaten nintzen. Azkenean, garai batean abeltzainak izandako asko hantxe topatzen nituen, eta haien-tzat sekulako poza zen elkartzea, hitz egitea... asko eskertzen zuten.

Eta haiek ere asko ematen zidaten niri. Jubilatutakoan, askotan sentitzen dugu ez dugula ezertarako balio, eta honetan lagunduz, nik zerbaitetarako balio dudala sentitzen dut, zoriontsu naiz jubilatu naizenetik.

Zu bakarrik aritzen zara baratzean, edo norbaitek laguntzen dizu?

Ez, ez, ni bakarrik aritzen naiz. Etxekoek askotan esaten zidaten, 'inozoa zara, beti lanean!'. Baina nik ilusioarekin egiten dut. Etxe honetara etorri ginenean atarian lorategia jarri genuen eta jendeak esaten zuen, 'bai lorategi ederra'. Baina, baratzean azak zeudenean

“ Honetan lagunduz, nik zerbaitetarako balio dudala sentitzen dut ”

eta oparitzen nizkienean, ederki gogoratzen ziren gero, 'bai aza ona!'. Lorategia polita da, bai, baina baratzea ere bai! (barreak)

Jendeari ere barazkiak oparitzen dizkiozu, orduan?

Bai, hemen soberan zegoena banatu egiten nuen, jendeari etxera eramateko ematen nion. Noizbait erosi nahi izan didate, baina nik ez dut nahi izan. Nik ez dut saltzen, oparitu egiten dut! Horrela beti gelditzen zara kontent.

Noiz arte segituko duzu ekoizpenarekin?

Ahal dudan neurrian honekin segituko dut, ikusi duzu orain ere baratzean nola azelgak, letxugak, porruak... baditudan. Orain Gerediango zahar-etxearen kudeaketan aldaketak egonen dira, mojek utzi egingen baitute, eta hara ez dut gehiago barazkirik eramanez. Baina Iruñera eramaten segituko dut, eta beste tokiren bat ere aterako da, agian.

Banaketa ere zuk zerorrek egiten al duzu?

Bai, ni neroni joaten nintzen. Kuntxak bete, kotxeko maletategian sartu eta hortxe joaten nintzen. Iruñera ostegunero joaten naiz barazkiak eramatera, eta jatetxean bazkaltzeko ere aprobetxatzen dut bidaia! (barrez).

Ureztatzeko, 'ur bedeinkatua'

Istorkoak umorez kontatzen ditu Ezcurrak, eta azaren inguruko gaztelerazko koplak zahar batzuk kantatzeko tarteak ere hartu du. Baratzea eta negutegiak bisitatzeko aukera izan dugu, eta hor ikusi ditugu zerbak, letxugak, porruak... urez-

tatzeko metro kubikoko bidoiak ditu baratzearen alde batean. "Ureztatzeko euri ura erabiltzen dut, etxalde hondoan bildu eta gero hona ekarri eta bidoiak betetzen ditut. Ur bedeinkatua dela diot nik, zerutik datorrena baita!".



Ahotsa askatzen ikasteko kantu-klaseak Muskizko Itsasonean

Musika ibilbide luze bezain oparoa du Oihana Fernandez Iturrik: hainbat musika taldetan abeslari gisa aritu ondoren –tartean Barañaingo AFU taldean 16 urtez–, kontserbatorioan jazz ikasketak egitera sartu eta iaz bukatu zuen karrera. Kontserbatorio garaian hasi zen kantu-klaseak han-hemen ematen, eta orain, Imotza ekarri du zerbitzua. Eskualdean izandako harrerarekin pozik dago barañaingar imoztartua.

Urtarrilean inauguratu zuten Muskizko Itsasoneko ganbara berritua, eta bertan hartu du kantu-klaseak emateko txokoa Fernandezek. “Klaseekin hasteko ideia ikasturte hasieratik neukan buruan, baina Itsasoneko teilatuaren konponketak amaitutakoan izan dut hasteko aukera. Eskualdeko bi ikaslerekin klaseak adostuak nituen aurretik, eta behin hori lotuta, karteltxo bat prestatu nuen eskaintza zabaltzeko”, azaldu du hastapena. Arrakasta izan zuen eskaintzak, gainera, momentu honetan bailarako sei ikasle ari baitira kantu-klaseak jasotzen. Ostegunetan izaten dira saioak, goizez eta arratsaldez.

Gasteizen, Iruñean, Lekeition... eta orain, Imotzen

Duela hiru urte etorri zen Fernandez Iruñetik Imotza bizitzera. Zarrantzen egin zituen lehendabiziko urteak, musikariz eta musikaz betetako etxe batean, eta duela zenbait hilabetetik, Muskiz du bizitoki. Kantu klaseei dagokienez, hainbat tokitan aritu izan da aurretik lanean: Gasteizen, Iruñean, Ororbian, Lekeition... “Karrera garaian hasi nintzen klaseak ematen, duela sei bat urte, eta geroztik musika eskola publikoetan nahiz pribatuetan aritu izan naiz toki desberdinetan”, aipatu du. Hastapenak gogoratzen hasita, ohartu da duela

urte asko Barañaingo Gaztetxean ere aritu zela kantu-klase modukoak ematen. “Tira, baina horrek ez zuen gaur egungoarekin zerikusirik, garai hartan ez nekien deus!”, gogoratu du barrez.

Kantu-klaseetatik gehien gustatzen zaionaz galdetuta, azkar erantzun du: “Ikasleen bilakaera ikusteak hunkitzen nau ni, asko gustatzen zait. Beldurrak askatzen laguntzea, ikustaraztea non egin dezaketen hobeto... jolas modukoa da, kasik ez da lana ere, ostegunak jai egunak dira niretzat”, dio. Irakasleak azpimarratzen duenez, emozioak ahotsarekin guztiz konektatuta daude, eta asko islatzen dira horiek kantuan hasterakoan. “Norbere momentuko emozioek,

beldurrak, nekeak... eragin handia dute. Gasteizen esan didate ‘irakasle terapeutikoa’ naizela, eta pentsatu dut ez dabiltzala gaizki, horretatik ere badute kantu-klaseek eta”, dio.

Ahotsa, musika-tresna

Pertsona gehienek badute ahotsa, kanturako oinarritzko tresna. Baina, Fernandezek dioenez, gauza bat da oinarritzko tresna edukitzea, eta beste bat hori erabiltzen jakitea. “Orokorrean, zaila da gure burua abeslaritzat ikustea, agian errazago kokatu dezakegu gure burua taldean, abesbatza batean... baina, bakarrik abestea? Arraroa egiten zaigu. Errazagoa da nor-





baitek esatea gitarra ikasi nahi duela, adibidez”, azaldu du. Musika eskoletan ere, ez da ohikoena izaten kantu-klaseak eskaintzea, eta ahotsa ez da musika-tresna gisa hartzen, normalean. “Denok abestu dezakegu berez, kontua da ahotsa askatzen jakitea. Hori da garrantzitsua niretzat”, gehitu du.

Klaseak ikasle bakoitzera egokitzen ditu irakasleak, baina errutina bat mantentzen du gehienekin. Ikasleak klasean lur hartzea, konektatzea eta gorputz kontzientzia hartzea da lehenengo pausoa. “Askotan aztoratuta iristen dira ikasleak, presaka... bada, kanpoko gauzetatik deskonektatzea da lehenengo gauza, arnastea, lepoa, bizkarra, eztarria, mingaina bero-

*Datorren ikasturtean
Imotz Kantuz
egitasmoa martxan
jartzeko asmotan
da Fernandez, izan
ere, bakarka baino,
taldean abesteko gogoz
agertu dira zenbait
herritar. Egitasmo
berrirako nahiz kantu-
klaseetarako izena
emateko helbidea:
oianeean@gmail.com*

teea...”, dio. Pianoarekin ahotsa berotzea izaten da ondoren datorren ariketa, teknikak, eskalak eta berlarri afinazioa lantzea. Ikaslearen arabera eta jorratu nahi duten es-

**Gorputz
kontzientzia
hartzea
garrantzitsuada**

tiloaren arabera, proposamen desberdinak egiten ditu Fernandezek. “Ikasle batzuek oso ozen abesten dute, bada, estrategia gehiago izan ditzaten, suabeago abesten irakasten diet. Beste batzuekin alderantziz gertatzen da”, dio. Klase bukaeran ikasle bakoitzak aukeratutako abestia lantzen dute, eta ikasitako teknikak txertatzen dituzte horretan.

Kaletik kontserbatoriora, ezohiko musika ibilbidea

Kantu-irakasleak kontatzen duenez, txikitatik izan du musikarako grina. “Familian harreman estua izan dugu musikarekin beti, anaiak akordeoia jotzen zuen, ahizpak zeharkako xirula, aitak ere zeharkako xirula jotzen zuen blues talde batean, ama txistularia zen bere bailaran...”. Umetan, gitarra ikasi zuen Fernandezek, baina onartzen du abesteko erabiltzen zuela musika-tresna. Gaztetan, Ratones Koloraos taldean hasi zen abesten, baina handik Bartzelonara joan zen ikastera eta taldea utzi zuen. “Buelatu nintzenez, Barañaingo Gaztetxean asteazkeneko elkartzen zen lagun talde bat musika egiteko, eta gonbidatu egiten ninduten”, gogoratu du. Horrela sortu zen AFU taldea, 16 urtez, lehengo urte arte, martxan egon zen taldea.

“Duela zenbait urte, pentsatzen hasi nintzen: ‘Beti melodia berak ateratzen zaizkit burutik, musika gehiago ikasi behar dut’. Akademia batean sartu zen musika ikastera, Nerea Erbiti irakasle zuela –eta jazz-aren munduan irakasle eta lagun izanen zuen Teresa Zabalza zuzendarietako bat zela–. ‘Jazz-erako prestatzen zuten hor jendea, eta esan nuen, ‘tira, probatuko dugu’. Hasieran ez nuen kontserbatorioan sartzeko erronka hori, baina pixkanaka gustua hartu nion eta burugogor jarri nintzen horrekin”. Sei urtez ikasi du kontserbatorioan, jazz-kantuko karrera, eta ikasketa amaierako lana estimuz gogoratzen du: “Erronka handia izan zen jazz-a euskaraz egitea, nire letrekin, emakumeen ahotsekin... niretzat oso proiektu berezia izan zen”.

“Kontserbatorioaz eta bertan irakasten den musika-doktrinaz hausnarketa ere egiten du abeslariak. “Uste dut batzuetan gazteegiak gabela musikaren doktrina hori jasotzeko, nolabait, kaiolaratzen gaituela musikaren jakintza horrek, irakasten digutenak baduelako politika bat. Konserbatorioan sartu nintzenez, pentsatu nuen banuela nahikoa heldutasun probatzeko, ikasteko. Orain, bere onurak ikusten dizkiot, eta damutzen naiz lehenago ikasi ez izanaz”.



AFU taldeko abeslari izan da Fernandez 16 urtez, iaz eman zioten bukaera bideari



Herri txiki infernu handi, Odieta



Alaia M



Olagueko mus txapelketako irabazleak



Bertso afaria Itsason Ekhiñe Zapiain eta Julio Sotorekin



Martin eta Miren Artetxe bertsolariak Larraintzarren



Muskizko ihoteak



Etulaingo ihoteak



Alkozko

aizkolariarekin hizketan

Alejandronitxeko nagusia

Jose Zenotz Zia, Alkozko aizkolariarekin joan den urtean hizketatu nintzen, Pulunpen ateratzeko asmoz. Eta ez badut gaur artio atera izan da Berueteko lapurrak bidera atera zitzaizkidalakoz. Eta luze joan zait. Ertz aunitzeko gertaera izan zen hura eta oso luze joan zait, hamaika Pulunpetan idatzi dut, luze. Orain betiko bidera itzuliko naiz, artikulu eta elkarrizketa motzagoetara. Eta arinagoetara. Oraingoan gizon argi eta alaia ekarri dut orri hauetara.

Bere etxean oso ongi hartu gaitu. Eskermila, Joxe!

Elkar ezagutzak egin eta nolabait hasi behar eta, bat-batean, bere memoria probatzeko edo, horrela bota diot:

Joxe, erran zaizkek senide guzin izenak.

Lau neska eta hiru anai. Mari Cruz, Ixabel, Benita, Vicenta eta anaie Roman, ni Joxe, eta gaztena, Fermin.

Eskolara noiz hasi hitzen yoaten? Mojetara?

Bortz urtetan mojetara. Han bi urte, zazpi urtetan primera komunioa eta orduen honara, eskolara.

Dotriñe ikesi biar!

Ikesi giñien zerbait, elizen.

Ikesi ta ongi ikesi gaña! Memoriz ikesten ziñuten?

Memoriz, beti guti. Errextan beti.

Joxe, hik katezismoa nola ikesi yun, euskiaz edo erdiaz?

Erdiaz, erdiaz.

Nok ematen zizten katezismoa?

Maistrak, apezak eta krixto guziek!

Eta biek erdeaz.

Biek erdeaz!

Dotrina, ondoren ere errepasatzen zuten urtero

Joxe, gero mutildutakoan yoaan biar izaten yun dotriñaz examinatzer apezakin. Sakristien.





Bai, gaizumen, astez, txartela hartzia.

Txartela hartu ta gero ze itten ziñuten?

Konfesatzera yoan, mendire yoan bearrian konfesatzera. Lauenbeta ta igandian maten zien komunioa eta guk txartela utzi. Eta bertzia't hartu.

Ta gero ze itten ziten txartelekin?

Gero, etxezetxe apeza etortzen yun bille, hauts itteko –erran itten ziten.

(Hausterre egunean eliztar guziei jartzen zitzairen hauts hartatik bu-ruan elizkizun batean. Garizumaren sarrera, penitentzia garaia hasten zela erran nahi zuen).

Eskolako kontuak

Mojetako eskola utzi ta hasi hitzen herriko eskolan.

Maistrue Don Luis yun. Bi urtez. Orduen harrek ald'egin'tzien eta maistra torri yuen.

Ta, zer moduz?

Maistruekin ongi. (Hala ere, euskaraz ez zekien eta Joxek ez zekien erdaraz)

Eta euskaraz aitziatik baziñuten kastiguik?

Bai, bai, pizarrian eskritzeko borteun aldiz edo "en la escuela no se habla en vasco".

Ze erran duk, Joxe? Zuen gazte denbora tristia izandu zela? Zeatik?

Tristia o txarra! Bai, diruik e'yun. Eta lana, ttikittikitatik.

Zertan aitzen hitzen lanian?

Bi bei izaten'giñizken eta nik ibiltzen nittien, zeatik anaiek etxetik yoan ittuen 10 urtetako; eta nik zazpi urte. Eta beiek hartu ta larría, nire kontu.

Atte zertan aitzen yun lanian?

Iketz'itten. 1888 edo 1889an sortue izaten yun; eta beti iketz'itten. Pion. Ultzama aldian eta Baztan aldian.

Eskola utzi eta lanera, latz

Joxe, eskola noiz utzi yun?

Hamalau urtetan. Gio batendako ta bertziandako lanian, hemen. Hamabortz urte Frantzian bete nittian, osaba batzuk bagiñizkien hor, Esnazun (Nafarroa Beherea) balarrereako yoan eta bi hillabete pasatu nittian; ta ni, bestetako torri!

Eta, primaberan, hamasei urte bete baño lenago, oiania, Baldandako, itzai. Eta hamasei urte beteta Legazpiara! Koñadoa banian han aitzen zena eta harrekin.

Patricio Echeverria fabrikari handian, erran nahi du Joxek.

Legazpian baziten ekipo bat oianian aitzeko eta han aittu nukin hemeretzi urtiak artio.

Bizitzeko nola moldatzen hitzen?

Koñadoa ta arreba Villarrealen (Urretxu) bizi ittuen eta al zelaik haien itxa yoaten nukin, bertzela oianeko txaboletan.

Ze lan ziñuten Patricio Echeverria fabrikako nagusiantzat?

Denetik, arbola botzen, nola plantatzen, nola hesten... denetaik. *(Patriciok han eta hemen zituen lur sailak ziren, arbolez beteak)* Hiru urte t'erdi in'itien Legazpian.

Eta handik Frantzire. Ziatik pentsatu yun Frantzire yotia?

Ekipoa desegin ziten. E'tzuela geiago seitu biar. Eta nai ziten sutan, fabrikari hastia, baña nik ez nien nai. Itxa torri nukin ta gero baztandar bat agertu yun, ta arrekin.

Nola zin izena baztandar horrek?

Calixto Altzuarate. Eta honekin zuenian Alpetara.

Halako mendi haundiek sekulan ikustekoak hik?!

Je, je, je, ze ikusi bia'nittien! Hemengoan aldian haiek mendiek ttuk!!!

Nontsu ziñeten?

Italiako mugen..., toki frankotan. Ziadade hurbillena Barcelonete. Departamentuko kapitalka duk Dignes.

Altzuaratekin zenbat lantalde ziñeten?

Bide, ta denetara 30-40 lagun. Ni geinian aittu nukin destajista, adarrak kendu ta zuritu. Dena piñu eta abetoak (*izaia*) Mandazai ere bai, kabliakin ere bai. Denetan rantxero ezik. *(Bota motozerrarekin egiten zuten, gainerakoa eskuz, gasolina garesti zegoela-eta).*

Noiz torri hitzen itxera?

Eguerritako. Eta hurrengo urtian ere Altzuaratekin Frantziere.

Berriz ere Frantziere, Altzuaratekin.

Bai, biño leku bajogotara. Departamento de Drôme yun hore. Piñoa giñin dena. Gero Junioan (*ekai-nean*) berriz Alpeetara, batzuk autoz eta bestiak kamionian, kamion kaman, trasto guzin gañen.

Diru pixko bat irabaztiagatik *-erraten du Joxek.*

Diru pixko'at? Puxke're izain yun! Hemen halako bi edo hiru?

Hiru ez, bide igual! Destajoan aittu'ezkioz geiago igual. Pipelinetan ere aittu nioken *(petrolio eta gasolio hodieta, oliobideetan).*

Soldaduska Huescan egiten zuen

Denboraz, soldadu yoan biarra, Joxe!

Bai, Altzuaratekin hiru urte in ta soldadu. Zaragozara kanpamentuz, eta ondoren Huescara, 22 urtetan.



Pozik?

Pozik ez, baña han eon biar.

Lanik ez ziñoten itten, eta ederki!

Paatzen zutenandako, naikoa!

Dena dela, jarri dut ez zirela lanean aritzen, baina ez da arrunt egia, behi deizten-eta aritzen baitzen bertze lagun batekin, bazituzten 12 behi. Kuarteleko behitegiez jakitera emateko moduko kontua:

Begiratu zieten tuberkulina ta du-dosak atra ta e'tzittiten kendu, ez!

Nolanai gise, han erdi alper ego-nez, gizendu iñen'itzen hi!

Bai, 63 kilo pisetzen nittin yoan nintzelaik eta gero lauetan hoge.

Guardi aunitz in'ittuen?

Hueskako soldaduk pernota, ta guardi iteko yende guti. Guardi aunitz, bai. Bazittiten urruti xamar polborin betzuk munizionez beteik ta guardi ittera! Oñez, tapa-tapa yoan atsaldetan. 24 orduko guardik. Lo're yantzik, korreajia eta kartutxerak kendu gabe. 60 bala kartutxeretan.

Ez dugu luzatu nahi izan soldadutako kontuekin. Joxe gizon zintzoa zen nonbait, ez zuten kalabozoan inoiz sartu.

Berriz ere Frantziara, mendi garaiak eta oihan aberatsak

Soldaduxkoa akatu eta berriz honia, nokin has'itzen lanian?

Oianian, Benito Baldarentzat, Ballekoan, Arraiztik goiti, bi illatez.

Eta gero?

Frantzire berriz, Calixto Altzuartekin, Alpeetara. Eta gero Pirineotan, bagoan. Hola bi urtez. Altzuartekin denetara bortz urtez.

Aldi hori ere akatu yun. Ondoren nokin aittu'hitzen?

Oskoztarrekin sozio. San Gaudensko papeleran. Hemen alde batera, "a destajo". Beti bagoa ta eur



itten. Dena eurtako, lodi zena lertu, dena eurtako.

Bortz sozio, Oskozko Gartzarón lau anaiak, eta ni, bortz.

Nola lertzen ziñuten trunku lodie? Burnizirikin?

Bai, baña polborakin ere'bai. Maten ziguteken polbora. Tarratuloakin zuloa in, kargatu, metxa yarri ta tira! Urte bat in'giñin fabrikendako.

Eta gero honia torri hitzen.

Lau lagun, Oskozko bat soldadu yoan yuen, hortaz, lau.

Eta non aittu ziñeten?

Markalaiñen, Larunben, hainbertze lekutan aittu giñozken! Pino postiak iten. Geientsuena Arakilgo Iriberriko fabrikendako. Oskoztarrekin denetara hiru urte.

Ta hurrengo urtian, nondako aittu hitzen?

Mariezkurrenandako, eta gero Frantzire, bi anai. 1975. urtian akatu nin oianeko lana.

Gerra ondoan lanian aittu hittun mutillek aunditz kejatzen yittun yanaz: baba, babazopa, urdaie, txokaletre pittiñen bat, deus gutxi geigo.

Frantzien Mariezkurrenandako ongi yaten giñien, eta gure kontu ai giñelaik ere bai! Ongi, ongi! Guk ongi yaten giñin.

Eta lo? Zenbat ordu?

Uden guti eta neguen geixago. Ude ondoan geiago. Siesta're bai. Bazkaltzeko ordu erdi bet eta siesta itteko ordu bet.

Fabrikan bukatu zuen lanean. Eta Patricio Echeverria fabrikan, baina Nafarroan



Oianeko lanak utzi, itxa torri, beittin bei paria't. Nola bizi? Zer pentsatu yun?

Ni lanian hasi nioken, segiden! Obretan. Ta geroago, Patricio Echeverriarendako, fabriken, Ollokin, serrerien.

Serrerien, batez'e erremienta kiderak itten: aitzurre, malluke, pala, paleta... hoiendako, denandako, dena kidera. E'yun bertzeik!



Txurdan

Hiztegia

Ezagutzak egin: darse a conocer.

Gaizuma=Garizuma: cuaresma (40 eguneko aldia izaten da).

Txartela: esamifia pasatzen zutenei ematen zitzaien txartel ttiki bat.

Hausterre eguna: miércoles de ceniza.

Itzaia: idiak gidatzen dituen.

Hetsi, hesten: cerrar, cerrando.

Mandazai-mandazain: mandoak ibiltzen dituen.

Hodia: tubo.

Oliobidea: oleoducto.

Mendi garaia: monte alto.

Bagoa=pagoa: haya.

San Gaudens (Lourdesko hurbilean): oraindik papelera handi horrek hor segitzen du. Zuretarako ez den guzia hara eramaten dute.

Alde batera: a destajo.

Tarratulua: zurean zuloak egiteko tresna.

Aizkora apustuak Basaburuarren eta ultzamarren arteko apustua handia

Berueteko Jose Juan Barbere-nak eta Jacinto Rekondo gazteek ultzamarrei desafioa bota eta Auzako Anselmo Alberrok eta Joxe Zenotzek hartu. 1980ko martxoan jokatu zuten.

Seina kanerdiko eta seinu metroko trunchoak ebaki behar izan zituzten Ultzamako plaza her-tsiari. Jokatu zutena 5.000 duro zen alde bakoitzetik, hau da, 25.000 pzta.

Hautsak harrotu zituen apus-tua izan zen. Izugarritzko jende pila bildu zen, 1000 lagun baino gehiago. Korredorea (artekaria) ere bazen eta trabesa asko egin zen. Hainbertzeko jende, hainbertzeko diru, hainbertzeko ikusmina sortu duen apusturik inoiz izan ote gure alderdian? Ez dut uste!

Biutarren kontrako apustu handie ebazi ta bertzen bat yoka-tu yun.

Bai, Barberenarekin, leen kontra ta orain elkarrekin, Eugiko Sevillano ta Encabon kontra, Larraintzarren.

Ze in'ziñuten?

Ebazi.

Eta ez yun bertzeik in

Bai, gio bertz'oa in giñin Encabo ta ni Olagueko Senosiain anaien

kontra. Hori're Larraintzarren eta ebazi in giñin. Eta e'nuken geigo atra. Bestetan bai, exzibiziotan, herri aunitzetan, Araitz, Larraun, Ultzama aldian. Toki aunitzetan.



Beruetarren kontra irabazi zuten protagonistak:
Joxe Zenotz eta Anselmo Alberro. Azken hau, auzarra



Martxoak gure atarian utzitakoak

Gure atari digitalean argitaratzen ditugunak ekartzen dizkizuegu hilerok. Martxoan ere eduki ugari izan dira, haietatik nabarmendutakoak bildu ditugu hemen. Honetan, Esan Erran irratan emandako edukiak aurkituko dituzue, batez ere, maila handikoak izan baitira.

Eztena eta badena historia atala egiten digute hilerok Esan Erranen Eneko lurramendi 'Tintok' eta Mikel Lakastak. Aurten, hainbat animalia inguruko istorioak, kondairak eta bitxikeriak dakartzkigute saio bakoitzera. Berriki enteratu gara, gainera, eskolan jarraitzaileak dituztela, izan ere, bosgarren mailan hilerok-hilerok entzuten dute kolaborazioa eta azkenekoa oinarri hartuta zerri arraza ezberdinen inguruko egin dituzten lanak bildali dizkigute Esan Erran irratan. Hemen, hala ere, martxoan ekarri digutena uzten dizuegu. Ez galdu Orioko baleaz eta zetazeoen inguruan gehiago jakin nahi baldin baduzue!

Eztena eta badena: zetazeoak



Maila handiko kolaboratzaileak ditugu Esan Erran irratan, eta, martxoan, *Izan ginelako bagara* atal berri bat prestatu zigun Iza-kun Altuna Mariezkurrenari. Historiako emakume interesgarrien inguruan hitz egin ohi digu, batez ere, sistema matxista honen ondo-

rioz, historia ofizialak albo batean utzi dituenak. Azkenekoa Euskal Herrira eta eskualdetik oso gertu aurkitu du gure protagonista. Amale Arzelus Arrieta, euskarazko irratigintzan aritu zen lehenengo emakumearen historia ekarri zigun Altunak.



Izan ginelako bagara: Amale Arzelus





Broma Gutxik, lehenengo urtebetzea!

Egun Ero irratsaioaren kolaborazio interesgarriez gain Esan Erranen irratsaio bereziak ere badiugu. Adibidez, ostiraletan, 15ean behin izaten dugun *Egun Ero Kantuz* saioa. Eskualdeko herritar bat gonbidatu eta bere kanta zerrenda kuttunari errepasoa ematen diogu. Gure azkeneko gonbidatua Irantzu Legarra izan da.

Egun Ero
Kantuz:
Irantzu Legarra



Egun Ero Kantuz txandakatuta, ostiraletan, beste 15ean behin, *Memoriaren Txokoa* ere izaten dugu. Hor, argiaren efemerideetatik abiatuta, gertakari historiko bat hartu eta horretan sakontzen dugu. Azkenekoan, aspirinaren asmakizunaz aritu ginen.


Memoriaren
Txokoa:
aspirina



Irantzu Legarra Esan Erranen

Broma Gutxi saioaren atal berri gehiago ere izan ditugu Esan Erranen, hain zuzen, 23. saioa izan da azkenekoa! Hardcore eta punk biniloak zuzenean jartzen dizkigu bi asteen behin *Tipule Meniere* jaunak, eta zoriondu beharrean gaude, apirilean irratsaioak —edo, berak dioenez, rat-saioak— urtebete beteko baitu. Musika saioan hausnarketarako tarterik ere hartzen du *Tipulek*. Hemen entzun ditzakezue orain arteko saio guztiak.

Broma Gutxi



Ameztin gainera...

Pulunpe guztiak PDF-an aurkituko dituzue! Batzutan aste batzuk itxaron behar da etxean jaso arte. Argitaratu berri webgunean zintzilikatzen ditugu, ordea, beraz, irrikitan irakurtzeko daudenak Ameztin aurkituko dute.

Agenda: eskualdeko hitzordurik ez galtzeko, ikusi gure agenda.



No hables ese español de mierda

Espainolak arrazistak al dira?

Iruñea Euskal Herriko hiriburua da. Hiri buruzagia deitu zuen Lapurdiko *Etxeberri Sarakoa* izenarekin ezagun dugun idazleak. Orain 300 urte, Nafarroako Erreinuko hiriburua eta garai hartako gure alderdian hiririk handiena. Eta euskalduna zen, erabat euskalduna orain ez bezala. Itxuraz eta izanaz, erdalduna dugu gaurko egunean.

Lehengo batean hala kontatzen zidan Joxepa adiskideak Iruñean zer gertatu zitzaion orain berriki hartu duen dentista baten lantokian:

-Dentista jubilatuta-eta, berria behar. Hala, dentista jubilatutak aholkatu **zidaan** Iruñeko etorbide eder batean, beheko plantan bere kontsulta duen dentista gazte bat. Joan **ninduan** zer bait jakitera eta harreran, nik:

-Egunon.

Eta beraren erantzuna:

-Buenos días.

-Egia esan behar **badiat**, espainol edukazio gabeko bat topatzeak ez **zitzaidaan** askorik gustatu, baina, aurrera! Eta izena eman eta hitzordua hartu **nian**, hurrengo asterako.

Eta, hala, hurrengo astean joan **ninduan** eta edukazio txarreko bat topatu beharrean, hiru topatu **nitian**:

Harreran, nik:

-Egunon – eta erantzuna:

-Buenos dias.

Berarekin iharduki ondoren, erizain bat azaldu **zuan** ni dentista lekura eramateko:

-Egunon –nik

-Buenos dias –berak

Sartu dentista gelara eta bertan **zegoan** emakume gazteari, nik, berriz ere, nire eskubideez baliaturik:

-Egunon –eta berak

-Buenos días, yo soy Juana y...

Hiru pertsonak, nire eskubideez itsu, zakur bat banintz bezala...

-Eta hik eta zer egin **hunan**, isildu?

-Bai, momentuan bai, baina dentista-besaulkian ordu erdi bat pasa, ongi pentsatu eta bukatu nuelarik eta ikusi nuenean erizaina gelatik atera zela, izan **nian** halako iharduki lasai eta mamitsua:

-Yo que soy navarra, yo que hablo el idioma del país, las tres personas a las que he saludado en navarro, me han contestado en castellano.

-Bueno, en el equipo ya tenemos una persona que es vasca.

-A mi eso no me importa, lo mínimo que pido es un poco de empatía y se me consteste con un Egunon, por lo menos!

-Bueno, es que tenemos también gente de Madrid y Zaragoza.


-¿Tanto cuesta que los que vengan a trabajar a Navarra aprendan aunque sea un mínimo? Quince o veinte palabras. Sabe, yo soy, aparte de na-



Hona hemen El País Espainiako egunkaririk salduenak ekarri zuen artikularen aipua X sarean. X horretan idatzi duen kazetari hori ez da nornahi. Espainiako kazetarik handiena ez bada, hurbil ibiliko da Ernesto Ekaizer.

Euskaldunokin ez dira hobeki portatzen espainolak, ez horixe! Baina, astoa makilara bezala jarriak gaude. Ustez, ongi. Egia, besterik da ordea, espainolen artean euskara gorroto dute. Hori da joan den 200 urtean gutxienez probatua dagoena. Euskaldunoi gorrotoa digute. Ameriketara latinoei bezainbeste edo gehiago.

Supremazistak eta arrazistak ote dira ba espainolak Trump eta bere kideak bezala? Zuek esan, nik duda handirik ez dut.



varro, cliente y me gustaria que me trataran como cliente.

-Ja, ja, ja, ederki botea! Eta orain nola **zeuden** gauzak?

-Orain, denek, ederki erantzuten **zidatek** egunon batekin. Zaragozakoak ere bai.

Hori bai, Zaragozakoak, diosalaren atzetik, hara zer bota **zidaan**:

-Es que aquí en Pamplona nadie habla en vasco.

Zer erantzun? Den-dena ez dugu kontatuko beharko ba, hurrengo baterako ere gorde beharko dugu bat ardo frexkoa!



Txurdan

Hiztegia

Hiria: ciudad.

Buruzugia: kasu honetan, principal, capital.

Hiriburua: capital.

Harrera: hemen recibidor.

Hitzordua: cita.

lharduki: conversar.

Eskubidea: derecho.

Diosala: saludo.

Aditzak hiketan

Nik batuan jarri ditut, baina hona hemen guk erabiltzen ditugun bezala:

- Zidaan: zidaken.
- Ninduan: nuken.
- Badiat: badit.
- Zitzaidaan: zitzaieken.
- Nian: nin.
- Ninduan: nuken.
- Nitian: nittin.
- Zuan: yun.
- Zegoan: zioken.
- Hunan: yun.
- Zeuden: zioden.
- Zidatek: zidatek.
- Zidaan: zeken.

LABORAL
kutxa

-k eta **AMA**
TOLOSA -k aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxa eta **AMA Tolosa**
bat gatoz gure lurra eta nortasuna
babesteko konpromisoarekin.

Eta, espiritu horrek bultzatuta,
oso zozketa berezia egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia**
gastronomiko eta 2 laguntzako
gau bateko egonaldia nekazaritza-
turismoko establezimendu batean*.



HARTU PARTE HEMEN:

laboralkutxa.com/eu/
babesleak-ama-tolosa



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa. AMA Tolosa jatetxeke esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 laguntzako bakoitza, eta gosaria barne duen 2 laguntzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.



Andoni Gaskue: “Edozein ume pilotarik duen ametsa bete dut dagoeneko”

Lehenengo txapela jantzi du profesionaletan Andoni Gaskue Larraintzarko atzelariak. Txikitako ametsa bete bezain pronto, duela hilabete galdutako Ignacio Gaskue aitatzirekin gogoratu eta hari eskaini zion. Iker Salaberriarekin bikote irabazi du oso bestela hasi zen txapelketa.

80 minutu baino gehiago iraungita eta ia 700 pilotakadaren ondoren, azkenean, Iker Salaberriak eta Andoni Gaskuek txapela irabazi zuten. Luzea izateaz gain, oso gogorra izan zen partida, besteak beste, Gaskuek eskuan mina izan zuelako, duela bi urte txapela galdu zuenean izan zuen minaren antzekoa. Baina, honetan, eutsi zion. Hasieran irabazitako abantaila galdu eta Julen Eguiguren eta Iñigo Bikuña arerioak gertu izan zituzten. Markagailuak 16 eta 17 jotzera ere iritsi zen. Baina azkeneko atsedenaldiaren ondoren, indarrez hartu zuten berriz jokoa eta txapeletako bat Larraintzarrera etorri da. Andoni Gaskue-ren lehenengoa da profesionaletan.

Martxoaren 22an izan zen final hori, Labriten. Ignacio Gaskue aitatzari galdu eta hilabetera zehatz-mehatz. Berarengandik jasotako ametsa bete eta zerura begiratzea izan zen atzelari gaztearen lehenengo keinua. Egun gutxi geroago, zintzotasunez erantzun ditu gure galderak.

Egunotan mila aldiz egin dizuten galdera nik ere egin beharra ditzut, zer sentitu duzu?

Momentuan, euforiarekin, ez zara oso kontziente, baina, gero, denborarekin sekulako poztasuna sentitu nuen. Edozein ume pilotarik duen ametsa, nik behintzat, bete egin dut dagoeneko.

“**Burura etorri zitzaidan lehenengo gauza zerura begiratzea izan zen**”

Ospatzeko aukera izan zenuen?

Iruñean ospatu nuen. Salaberria bikotekidearekin batera afaria izan genuen Café Iruñean eta gaua bukatu arte kalean ibili ginen (irriak).

Eta, horrelakoetan, maite dituzunekin gogoratzen zara. Zuk aita-txiri eskaini zenion txapela.

Bai horrela izan zen. Larunbatean hain justu hilabete bat bete zen aitatzari galdu genuenetik. Koinzidentzia edo ez, horrela tokatu zen eta nik behintzat aitonari eskaini nahi izan nion. Bukatu bezain laister burura etorri zitzaidan lehenengo gauza zerura begiratzea izan zen.

Bera ere pilotazalea al zen?

Bai, pilotazale amorratua. Ziur aski berari eta aitari esker hasi nintzen pilotan. Orduan, azken tanto horretan, hogeitabira iritsi eta bihotzetik atera zitzaidan keinua izan zen. Oso hunkigarria izan zen.





Behin pasata, eta zorionez, emaitza onarekin pasata, finala nola ikusten duzu? Zer azterketa egin duzu?

Momentuz, orain, ez dut partida berriz ikusi. Partida oso txarra izan zen galdutako pilota asko egon zirelako, eta momentuz ez dut ikusiko. Partidak horrelakoak direnean ez zait gustatzen berriz ikustea. Denbora bat pasata ziur aski ikusiko dut baina momentuz nahiago dut txapelarekin gelditu. Atzelari gisa urteko txapelketarik garrantzitsuena pasa da, orain atsedean pixka bat hartu eta ongi errekuiperatu nahi dut, txapelketa oso gogorra izan delako. Txapelaz disfrutatu eta hurrengo egunetan martxan jarriko gara berriz, betiko errutinak hartuz. Ondoren, Peiorekin (Etxeberria) botilero, buruz buruko txapelketa prestatzea tokatzen da.

16 eta 17 ere ikusi genuen markagailuan, finala galtzear ikusi al zenuten? Horrelakoetan, nola eusten zaio partidari, batez ere buruari dagokionez?

Zorionez partida hasieran abantaila handia hartu genuen, 8 eta 17 jarri ginen aurretik. Hor, eskuan pixkanaka-pixkanaka mina gehiago nabaritzen hasi nintzen eta aurkariak partidaren kokatzen ere hasi ziren, tantoak egiten hasi ziren. Gogorra izan zen, eta niri behintzat leku guztietatik mamuak agertzen hasi zitzaizkidan. 16 eta 17 jarri ziren baina, hor, zorionez, Julenek (Eguiguren) etsi-etsian bi pareta bat bota zuen eta txapa jo zuen. Txapa hori loria izan zen niretako. Ondorengo atsedendia, hiru minnuta horiek, eskuaren minarendako oso ongi etorri zitzaizkidan eta azkeneko tanto horiek nahiko azkarrak izan ziren, zorionez, eta eutsi ahal izan nion eskuari eta abantailari.

“**Txapelketaren azken txanpara gure momenturik hoberenean iritsi ginen**”

Gainera, leher eginda izanen zinteen, ezta? Partida luzea izan zen.

Masajistatik atera berri naiz orain eta hain zuzen ere horretaz hitz egin dut berarekin, barrutik ez nuelako oso gogorra bizi izan edo oso luzea izan zenik sentitu. Nik izan nuen arazoa eskuaren mina izan zen baina fisikoki arin sentitzen nintzen oraindik. Giroa, atmosfera, hodei batean bezala sentitzen nintzen, adrenalinak hori eragiten dizu. Gerora lasaitasunez atzera begira, partida oso gogorra izan zela ikusten dut. Afarian ere oraindik kalanbreak izan genituen.

Partida gogorra, eta txapelketa ere bai. Esan duzu, lehenengo fasean hanka bat txapelketatik kanpo zenutela. Zein uste duzu izan dela gakoa txapelketari buelta emateko?

Lehenengo itzulian ez ginen ongi ibili. Emaitzek ez zuten laguntzen, zazpi partidetatik bakarrik bi irabazi genituelako eta horrek sailkapenaren azkenekoak edo azkenaurrekoak izatera eraman gintuen. Horregatik, bigarren itzulia ia bikain egitea behar genuen txapelketan jarraitzeko. Gakoa Iker (Salaberria) bikotearekin hitz egitea izan zela uste dut eta zuzendu behar geni-

tuen xehetasun batzuk zuzendu genituela. Batez ere, partidetan hobeto sartzea, hasieran egiten genituen hutsekin aurkariari abantaila ematen geniolako. Hortik hasita eta guregan konfiantza gehiago lortuta pixkanaka-pixkanaka emaitzak hobekiago izan ziren. Konfiantzak asko laguntzen du, eta horrela txapelketaren azken txanpara gure momenturik hoberenean iritsi ginen. Azkenean, finalean sartu ginen, sekulako saria izan zen eta txapelarekin etxera itzultzearekin amaiera bikaina eman genion txapelketari.

Iker Salaberria izan duzu bikote. Laguna duzu. Gogoak zenituen berarekin aritzeko. Nola izan da?

Plazerra izan da. Txiki txikitatiki ezagutzen dugu elkar eta askotan aurkari ere izan gara, elkarrekin askotan jokatu gara. Debutatu nuenetik beti esan dut horrelako lagun batekin aritzeko ilusioa edo gogo asko nituela. Hainbeste ezagutu duzun pertsona batekin aritzea berezia da. Aurten elkarrekin tokatu zaigu eta oso gustura aritu gara nahiz eta une askotan larri ibili garen eta egoera kritiko asko bizi izan ditugun. Baina txapela etxera ekarri dugu eta sufritu ditugun une horiek guztiek merezi izan dute.

Eta, aipatu dugu, ondoren, hurrengo erronkei heltzeko unea dela. Zein duzu hurrengo eta nola ikusten duzu?

Atsedena hartu eta eskua errekuiperatzea da lehena. Orain, Peio (Etxeberria) buruz burukoarekin hasiko da, eta berarekin botillero errepikatuko dut; beraz, ahalik eta gehien laguntzen saiatuko naiz. Niri dagokionez, uda ahalik eta hobekien prestatzen ahaileginduko naiz, eta hori izanen da nire hurrengo erronka, uda polit bat izatea.



Basaburuko udal-langilea

Patxi Biurrarenak merezitako deskantsua hartzeko, Oier Legarra gartzarondarrak hartu dio erreleboa

20 urte egin ditu Patxi Biurrarena udabearrak Basaburuko udal-langile gisa. Ezaguna da bailaran, han-hemen aritu baita lantxoak egiten urte guzti hauetan: sasiak kentzeko lanak zirela, eskolako berritze txikiak zirela, Apeztegi berriko argiak aldatu behar zirela... han zegoen Patxi laguntzeko prest. Oier Legarra gartzarondarrari eman dio erreleboa Biurrarenak, eta biak elkarriketatzen arobetxatu dugu aldaketa momentua.

Patxi Biurrarena:

"Etxe ondoan eta nire jendez inguratua egotea da lan honen gauzarik politena"

Noiz hasi zinen Basaburuko udalarentzat lanean, eta nola izan zen hasiera?

2005ean hasi nintzen, aurten beteko dira 20 urte. Aurretik eraikuntzan aritu nintzen lanean, baina langabezian gelditu nintzen. Etxean hilabete pare bat egin nituen langabezian, baina orduan Basaburuko zinegotzi batek aipatu zidan udalerako norbaiten bila zebiltzala, eta animatu egin nintzen. Erdi txiripaz izan zen! Nire aurretik bazegoen Gartzarongo gizon bat lan puntualetan aritzen zena, baina ez langile finko moduan. Hasieran urari lotutako lanak egiteko norbait nahi zuten udalean, baina Aizarotz ere garai horretan sortu zen, eta lan gehiago suertatzen joan ziren...

Zer da lan honetatik gehien gustatu zaizuna?

Etxe ondoan eta betiko jendez inguratua egotea da politena, nire ustez. Tira, horrek bere alde txarra ere badu, azkenean hemen zaude, ezaguna zara, eta jendearentzat erraza da zu deitzea. Baina polita ere bada. Niri, gainera, egunero gauza desberdinak egitea gustatzen zait, ez fabrika batean bezala beti lan bera errepikatzea. Eta, kanpoan ere lan



Oier Legarra gartzarondarrak hartu dio erreleboa Patxi Biurrarenari ▲



asko egitea tokatzen da, eta kanpoan aritzea gustuko dut, nahiz eta euriarekin-eta batzuetan gogorra ere baden.

Zein lan mota egin dituzu, nolakoa zen zure lan-eguna?

Denetatik egitea tokatu zait. Eskolan egurrezko berogailua jarri zutenean nire lana asko aldatu zen, hiru orduro egurra botatzera joan beharra nuelako, eta ezin nuen goiz osorako norabait joan. Berogailua piz-

tea eta elikatzea, uraren mantentze lana egitea, erosketak, sasiak kentzeak, itaxurak konpontzea... lan honetan hastean ez dakizu denetik egiten, ez zara ez elektrizista ezta iturgina, baina pixkanaka gauzak nola egiten diren ikasten joan naiz. Egia da udalak lokal asko dituela: Apeztegiberri, irratia, udala, eskola, kontsultategia... tontakeriak izaten dira askotan, baina gauza asko ateratzen dira, eta bueltaka ibiltzen nintzen!

Lana bukatuta, zein da zure plana orain?

Langabezian nago orain, bi urte eginen ditut horrela eta 2026an jubilatuko naiz. Gauza asko egiteko gogoia dut, ongi eta sasoian bainago oraindik. Baina, hasteko, urtebete lasai hartuko dut, etxean egoteko. Bestetik, beti gustatu zait GKEekin lankidetzan herrialde desberdinetara joatea, bidaiatzea... hori ere badut burutan, aurrera begira.

Oier Legarra:

"Gustura ari naiz lan honetan, eta Patxik ere asko lagundu dit"

Noiz hasi zara Basaburuko udalarentzat lanean, eta nola suertatu da aukera?

Abendu akaberan sartu nintzen lanera. Patxik betetzen zuen plaza egonkortzeko atera behar zuen, eta merezimendu bidezko plaza duela bi urte atera zen. Orduan argitaratu zen, baina plaza orain eman dute. Izena eman eta merezimenduak aurkeztu nituen, eta lehendabizikoa suertatu nintzen. Horrela sortu zait aukera.

Aurretik antzeko lanen batean aritua zara?

Bai, azken urteetan Eguesibarko udalean aritu naiz lanean zerbitzu anitzetan. Aurretik, kirol instalazio batzuetan ere aritu nintzen atezain gisan, nahiz eta hor mantentze lan gutxiago egitea egokitu zitzaidan. Baina Eguesibarkoan bai, hemengoaren lan bera izan zen. Desberdintasuna da han 10-12 langileko taldea ginela, eta hemen bakarrik ariko naizela.

Patxirekin batera tarte batez ikasteko aukerarik izan duzu?

Bai, hasi nintzenean elkarrekin egin genuen tarte bat, baina esan beharra dago Patxik berak nahi zuelako etorri zela, eta hori asko eskertzen diot. Gainera, lan guztiak kolpetik irakatsi beharrean, garai bakoitzean

momentu horretako lanak irakasten ari zait, eta horrela askoz errazagoa da ikastea. Zalantzak ditudanean deitu edo mezu bat bidaltzen diot, eta beti erantzuten du. Aukera hori izatea sekulako luxua da niretzat.

Gustura ari zara?

Bai, momentuz oso gustura ari naiz. Azkenean, Patxik aipatu bezala, etxean lan egitea da niretzat ere, bailara ezaguna dut, jendea ere bai... beraz, oraingoz, gustura.

Zer da momentuz lan honetatik gehien gustatu zai-zuna, eta zerk ematen dizu erreparatu edo beldur pittin bat?

Denbora norberak kudeatzeko aukera duela gustatu zait, adibidez. Badira lan batzuk egin beharra direnak edo lehentasuna dutenak, baina beste batzuk norberak antolatu ditzake. Eta, beldurra edo erreparoa? Bada, hasieran beldur nintzen moldatuko ote nintzen, izan ere, beste lanetan beti taldean edo jende gehiagorekin aritu naiz, eta bat ez bazen moldatzen, beste norbait zegoen laguntzeko. Baina, tira, Patxi hemen edukitzea ere abantaila da. Eta, berak esan duen moduan, denetik egiten ez dakigu, baina joanen gara ikasiz.



Ultzamako

Liburutegia

Udaberri tronpetaria

Udaberri tronpetaria iritsi zen, Delinquentes-ek abesten zuten bezala, egun luzeak, Aste Santuko oporrak... eta liburutegitik irakurketak eta kultur proposamenak eskaintzen jarraitzen dugu, zinema eta dokumentalak ardatz dituen hilabete honetan.

Baina, lehenik, hileko erakusketa-rein hasiko gara: **"ZAINZA ERDIGUNEAN"**. Pertsona guztiak, gure bizitzan zainketak beharrezkoak ditugu, zaintzaileak eta zainduak izatea beharrezko ditugun bezala. Hautzaroan, zahartzaroan, gaixotasunean, dolu emozionalean edo ahulezi materialean zaintza beharra areagotu egiten da, eta beraz, bizitzako edozein momentutan beharko dugu zainduak izatea. Erakusketa interesgarria, Baztango udalari esker izango duguna,

ohi bezala Larraintzarko Bentan ikusgai.

Zinemara pasata, apirilaren 4an azken urteetan klasiko bihurtu dena izango dugu: LABURBIRA. Bi helburu nagusi ditu LABURBIRAK: euskal zinemagintza hauspotzea batetik, zinemagileei beraien lanak erakusteko aukera emanaz, eta herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea, bestetik. 20 urteotan bide arrakastua egin du **LABURBIRAK**: euskal zinemagintzaren erakusleho erre-

ferentziala bihurtu da, eta zirkuitu egonkor eta zabala eskaintzen duen neurrian, industria osoaren pizgarri moduan ere eragiten du. Euskaraz ekoiztutako film laburren zirkuituak hogeita bigarren edizioa beteko du 2025ean. Aurtengo zuzendariak eta filmak hauek dira: Ekain Martinez de Lizarduy (*Prosopagnosia*), Sonia Estevez (*Plazer bat*), Eneko Sagardoy (*Betiko gaua*), Ekain Irigoien (*Europa*), Karmele Mitxelena, Alaia Martin, Iraitz Mateo (*Pentsatzen dut*), Jone Arriola (*Hor konpon*), Nerea Ayala, Patricia Fañanas, David Modroño, Iraia Yarto (*Goodbye Kepler*) Alba Lozano (*Utlandsk*). Azken honetako gidoi-laria, Mercedes del Ama, gurekin egongo da, apirilaren 4an, esan bezala, 19:00etan Larraintzarko Bentako areto nagusian.





Hurrengo ostiralean, apirilaren 11n, leku eta ordu berean, dokumental bat ikusiko dugu: **VIDAS IRRENOVABLES**, Fran Vaquerok zuzendutako filma. Hau da sinopsiak azaltzen diguna: "Erregai fosiletan oinarritutako energia-iturrien ordeztu energia-iturri berriztagarriak erabiltzeak landa-eremuko ekosistemak, ekonomiak eta gizarteak suntsitzen ari dira. Egoera kezkaragarri honen aurrean, pertsona askok ez dute beren lurraldea hiltzen ikusi nahi, eta beren bizitzak ematen ari dira egoera hori geldiarazi ahal izateko".

Eta, hilabetea amaitzeko, Aste Santuko geldialdi txikiaren ondoren, orain berreskuratuko dugu Neguko Zinema zikloan ikusi ahal izan genuen familia-pelikula. **HOO-PER OILASKOERBIA**, Hopperren



istorioa kontatzen du, Pedro erregearen seme adoptatua, erdi oilasko eta erdi erbi jaio zen abenturazale ospetsua. Ezberdintasunak gorabehera, onartua izateko irrikaz dago Hopper, eta abentura zirraragarri bati ekingo dio Abe zerbitzari leialarekin (dortoka sarkastiko bat) eta Meg arte martzialetan aditua den mofeta ausartarekin, Iluntasunaren Hamsterra izeneko aztarnaren bila. Euskaraz izango da film hau, eta -adi ordutegiari!- 18:00etan.

CHOLITA VOLADORA MARCIANA

Ohi bezala, gomendio literario batenkin amaituko dugu, baina oraingoan gu re liburuzain lotsatiak beharrean, guk egiten dugu, Pulunpeko langileok: Patxi Irurzunen azken eleberria, *Cholita voladora marciana* izenekoa. Proposamen martzianoa eta dibertigarria, baina gure liburuzainaren literatura-aren ezaugarriak, hau da, amorru eta kritika sozial dosia duena. Hau da eleberriaren argumentua:

"Etorkizun ez hain urrun batean, Iruña-Volkswagen -Iruña zaharraren izen berria- sanferminei buruzko parke tematiko erraldoi bihurtu da. Parke horretan, biztanleen erdiek extra gisa lan egiten dute, beren burua irudikatuz, eta beste erdiak nekez irauten du bizi-rik hiria pilotzen den lurpeko geruzetan (azaleratik zenbat eta urrunago egon, orduan eta pobreako).

Bolivia-Txikian, Samy Grougroug Mamani gaztea bizi da, Boliviako emigrante baten eta bigarren belaunaldiko estralurtar baten alaba mestizoa. Samyk Belen Esteban Kazetaritza Fakultate ospetsuan matrikulatu nahi du eta horretarako dirua aurrezten du westko borroketan txolita hegalaria gisa lan eginez. Sexu-estortsio kasu batean nahastuta egon ondoren, Samyk infernuetara bidaia bat hasiko du, eta bertan gerrillari ultrak, kolore guztietako polizia arrazistak edo pelikuletan José María Aznarren aurpegia duen kareta baten atzean ezkutatuta agertzen den aktore porno bat topatuko ditu...



Ernesto Murillo «Simonides» euskal komikigilearen ia ehun marrazkirekin ilustratua, Patxi Irurzunen lan futurista honek orainaldiko arazoei buru hitz-egiten digu: eskuin muturraren gorakada, indarkeria matxista, turismo kani-bala eta gentrifikazioa...

Patxik berak emanen dizkigu xehe-tasunak hurrengo Pulunperen batean, egiten diogun elkarriketan.

 Patxi Irurzun



2025eko otsailean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

ODIETA Gaskue

Enara Lopez Juanola, Aitor eta Colomaren alaba,
2025eko urtarrilaren 25ean jaio zen **Urritxenean**.


“Aupa bat gure
gurasoei!”



Heriotzak:

BASABURUA Beruete

Lorenzo Soraluze Arrarats, **Aldaregi-ko** nagusia, otsailaren 7an hil zen 89 urtetan.



▲ Lorenzo Soraluze

ULTZAMA Iraizotz

Lourdes Barberena Mugiro, **Zurgindegiko** alaba, otsailaren 12an hil zen 66 urtetan.



▲ Lourdes Barberena

Larraitzar

Ignacio Gaskue Olasagarre, **Apeztegiko** nagusi zaharra, otsailaren 22an hil zen 97 urtetan.



▲ Ignacio Gaskue

“Beti izanen zaituztegu gogoan”

MANTENTZE · LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



2024-2025 PROGRAMAZIOA

ORDUA	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
22-06	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
06-08:30	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Musika	Musika
08:30-09	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala		
09-10						Landaberri	Osasun Etxea
10-11	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Gonagorri	Gonagorri
11-13:30	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Musika	Musika
13:30-14	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa		
14-14:30						Hitza Jolas	Kontatzera Noazu
14:30-15	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
15-16						Egonarria	Lur eta Murmur
16-17	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Adi	Gramofonoa
17-18						Reggae Fever	Z-Kluba
18-19	Gelditu Makinak	Oroimen Histerikoa	Ahapetik	BTN	Patiyoko Atzuak	Musika	Musika
19-20	Desgazea	Ad Libitum	Revolutionary Grooves	Broma Gutxi		Berria FM	Kinka
20-21	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Broma Gutxi	Otea Lili
21-22	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Haus of Beats	Sateliteak

- ▶ Gure saio propioak, Esan Erran irratiakoak
- ▶ Zebrabidea, Arrosa sareko magazin propioa
- ▶ Euskalerrria Irratia

- ▶ Gure musika
- ▶ Euskadi Irratia
- ▶ Berria Podcastak

- ▶ Arrosa sareko beste irratiaren programak (Naiz irratia, Argia Podcastak, Antxeta irratia, Arraio irratia, Kontrako Eztarrix, 97 irratia, Txapa irratia, Gure irratia)